

/2016 FORU DEKRETUA, XXXAREN XX(E)KOA, NAFARROAKO
FORUZAINGOAREN ANTOLAKETAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN
ERREGELAMENDUA ONESTEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Uztailaren 26ko 265/2004 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foruzaingoaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onetsi zen. Erregelamendu horrek Foru Komunitateko herritarren beharrei oso-osorik erantzuteko moduko antolaketa eredia ezarri zuen, eta baliabide berariaz operatibo eta funtzionalen taxua eman zion erkidegoko polizia kidegoari. Lehen aldiz, Foruzaingoaren lurralde-hedapenari heldu zitzaion, eta polizia etxeak definitu.

Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak, Nafarroako polizia kidego guztiendako oinarritzko araubidea ezartzeaz gain, zernahi zela haren jarduketa eremua, jarduketa oinarri batzuk eta tamaina berri batzuk ekarri zituen polizia modernoa eta garapen betean dagoena taxutzeko.

Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak ekarritako ikuspegi berri hori izan zen Foruzaingoaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamenduaren lehen aldaketa egiteko arrazoi nagusia; hura azaroaren 30eko 76/2010 Foru Dekretuaren eskutik etorri zen. Foru dekretu horrek Foruzaingoko goi mailako unitate organiko, arlo eta dibisio gehiago ekarri zituen.

Gaur egun, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak aldatu berri du martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea. Orobat, gastu publikoa murrizteko politikak mantentzen dira eta agerian gelditu da Foruzaingoaren funtzionamenduan arrazionalizazioa lortzeko premia. Horren guztiaren ondorioz, beharrezkoa da unitateak berrantolatzea, dibisio bat desagertuz eta beste bost

dibisio brigada bilakatuz. Horren ondorioz, azken horien burutzetan inspektoreak izanen dira komisarioen ordeztan, horrek aurrekontuetan dakarren murrizketarekin. Hala izanagatik, Foruzaingoak alde batera deus utzi gabe segituko du bere eskumenenak erabiltzen, desagertzen diren unitateen jarduketa esparruak polizia-egituraren gainerakoak bere gain hartuko dituen heinean.

Bestetik, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak, bere 11. eta 12. artikuluetan, geroago egiteko erregelamenduzko arauetara igortzen du agurrari eta armeei buruzko kontuen garapena.

Hori horrela, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak proposatuta, Nafarroako Kontseiluaren irizpena ikusirik eta Nafarroako Gobernuak 2016koaren ...(e)ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DU,

Artikulu bakarra. Onetsi egiten da Foruzaingoaren antolaketaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua. Testu hori foru dekretu honi erantsi zaio.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrik gabe gelditzen dira foru dekretu honi kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, bereziki, Nafarroako Foruzaingoaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onetsi zuen uztailearen 26ko 265/2004 Foru Dekretua.

Azken xedapenetan lehenengoa. Ahalmena ematen zaio Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari foru dekretu hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

FORUZAINGOAREN ANTOLAKETAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN
ERREGELAMENDUA DE NAVARRA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Xedea*

1. Erregelamendu honen helburua Nafarroako Foruzaingoiari bere eginkizunetan aritzea ahalbidetuko dion antolamoldea finkatzea da eta haren funtzionamenduari, uniformeari, erregelamenduzko agurrei eta armei buruzko arauak ezartzea.

2. Barne antolaketari, eginkizunei eta funtzionamenduari dagokienez, Erregelamendu honek eta gainerako xedapen aplikagarriek arautuko dute Nafarroako Foruzaingoa.

2. artikulua. *Jarduketa eremua*

1. Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitatea izanen du jarduteko eremua.

2. Aurreko atalean xedatutakoa deusetan galarazi gabe, Foru Komunitateko lurraldea, Foruzaingoa ezartzeari begira, polizia eremuetan banatzen da. Lurraldeari dagokionez, polizia eremu bakoitzak polizia etxe bakoitza sortzen denean adierazten diren udalerriak hartuko ditu bere baitan.

3. Erregelamendu honen ondorioetarako, Foruzaingoko egituran dauden unitateak zentralak edo lurraldekoak izan daitezke, ohiko egoeretan dagokien eragin eremua Nafarroako lurralde osokoa edo zati batekoa den, hurrenez hurren, kasuan kasuko unitatea sortzeko arauan ezartzen denari jarraikiz.

3. artikulua. *Eginkizunak*

Foruzaingoak izanen ditu Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak esleitzen dizkion eginkizunak.

4. artikulua. *Mendekotasun organikoa.*

Barne aferen arloan eskumena zein departamentuk duen, horrexen mendean egonen de Nafarroako Foruzaingoa.

II. TITULUA

NAFARROAKO FORUZAINGOAREN ANTOLAKETA

I. KAPITULUA

Antolaketaren egitura

5. artikulua. *Foruzaingoko burua*

1. Barne zuzendari nagusiaren agintearen pean eta haren mende zuzen-zuzenean, Foruzaingoko buruari dagokio Nafarroako Foruzaingoaren zuzendaritza eta agintaritza operatiboa bere gain hartzea, indarra duten arauetan herritarren babes eta segurtasunari buruz kidego horretarako ezartzen diren politika eta helburuak bete daitezen.

2. Horrez gainera, honako eskudantzia hauek dagozkio Foruzaingoko buruari:

a) Nafarroako Foruzaingoa osatzen duten unitate guztien jarduera bulkatu, koordinatu eta segimendua egitea.

b) Foruzaingoaren Plan Estrategikoaren prestaketa, hedapena, ebaluazioa eta berrikuspena sustatzea, herritarrek herritarren segurtasunaren arloan dituzten premia eta igurikapenekin bat etorritz.

c) Antolaketaren, funtzionamenduaren eta antolamoldearen gainean xedapenik egokienak sustatzea, Foruzaingoak segurtasun arloan dituen premiei erantzuteko.

d) Organo eskudunari prestakuntza arloko premiak zein diren adieraztea, eta diseinaturiko planak prestatzean eta betearaztean laguntzea.

e) Urteko aurrekontu premiak aurreikustea eta Barneko zuzendari nagusiari helaraztea.

f) Epaileekin, epaitegiekin eta fiskalekin behar diren harremanak izatea, polizia judizialaren arloan Foruzaingoari dagozkion lanetan.

g) Diziplinako arau-hauste arinen ondoriozko espedienteak irekitzea, horiei zehapenak jartzea eta, arau-haustek larriak eta oso larriak direnean, espedienteak ireki daitezela eskatzea.

h) Merezi duten foruzainei esker onaren adierazpen publiko edo pribatua bideratzea, ez badu behintzat Barne aferen arloan eskumena duen departamentuko kontseilariak hori bere gain hartzen, eta beste esker-sari batzuk emateko proposamenak egitea.

i) Beste polizia kidego batzuekin behar diren harremanak izatea, lankidetzeta eta koordinazio egokia izateko asmoz.

j) Beste agintari eta erakundeen aurrean Foruzaingoaren ordezkaria izatea, beste kargu edo agintari batzuei dagokien ordezkaritza deusetan galarazi gabe.

k) Komunikazio eraginkorra sustatzea herritar guztien aldera, delinkuentziari aurrea hartzeko eta Foruzaingoaren jarduera zabaltzeko xedez.

l) Herritarrei zerbitzu egitean, kalitatea bermatzeko sistemetan oinarrituriko hobekuntza etengabea sustatzea.

m) Foruzaingoaren jardueren urteko oroitidazkia sustatzea, baita haren zabalkundea ere.

n) Indarra duten xedapenek haren gain uzten dituzten gainerako eginkizunak.

3. Nafarroako Gobernuak libreki izendatu eta kargutik kenduko du Foruzaingoko burua, Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariak proposaturik. Foruzaingoko burua behin-behineko kargua da. Bai izendapena bai kargu-uztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

4. Foruzaingoko burua kanpoan edo eri dagoenean edo aldi baterako beste edozein ezintasun suertatzen zaionean, Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariak izendatzen duen komisario nagusiak beteko ditu, bitarte baterako, haren eginkizunak, harik eta itzultzen den arte. Izendapen espresik egiten ez bada, enpleguan antzinasun handiena duen komisario nagusiak ordeztuko du Foruzaingoko burua eta, berdinketarik izanez gero, bakoitzak bere deialdian lortutako amaierako hurrenkeraren arabera erabakiko da ordezkoa.

5. Unitate guztiei manatzen zaizkien zereginak hobeki antolatzeke, Foruzaingoko buruak zilegi izanen du lan taldeak antolatzea, atxikipen organikoa alde batera utzita. Horiek enpleguan graduaziorik eta antzinasun handiena duen agintariak zuzenduko ditu, eta agintari hori Foruzaingoko buruak izendatuko du bertako kideen artetik. Izendapen espresik egiten ez bada, taldeetako kideen artean enpleguan graduaziorik eta antzinasun handiena duen agintariak zuzenduko ditu taldeak eta, berdinketa izanez gero, deialdiko hurrenkeraren arabera erabakiko da.

6. artikulua. *Unitate organikoak*

1. Nafarroako Foruzaingoa egiturazko maila hauen arabera antolatzen da operatiboki, garaienetik apalenera: arloak, dibisioak, brigadak eta taldeak.

2. Arloak eta dibisioak organo zentralak dira eta Iruñean kokatuko dira.

3. Buru bat egonen da arlo, dibisio, brigada eta talde bakoitzaren arduradun, kasuan kasuko unitateko buru.

4. Orokorrean, arloek komisario nagusi bat izanen dute buru, dibisioek komisario bat, brigadek inspektore bat eta taldeek inspektore-orde bat.

Salbuespenez, taldeek kabo bat izan lezakete buru, horretarako behar bezalako arrazoiak daudenean tamainaren, espezializazioaren eta antzeko bestelako parametroen aldetik. Halakoetan, bere enpleguari dagozkion ordainsariak jasoko ditu, gehi burutzagatik dagokion osagarria.

7. artikulua. *Arloa.*

1. Arloa hainbat polizia-lan homogeen egiten dituen unitate organiko zentrala da. Bera osatzen duten unitateen goi-agintaria da eta haien jardueraren sustapena, koordinazioa eta kontrola egitea dagokio.

2. Arloko buruak arloko gaietan dagozkion eginkizun orokorren gaineko agintea izanen du, eta eginkizun horiendako esparrua ezarriko duten jarraibide orokorrak emanen ditu.

8. artikulua. *Dibisioa.*

1. Dibisioak arloei atxikiriko organo zentralak dira. Polizia-lanaren esparru jakin batzuen zuzendaritza taktikoa dagokie.

2. Zuzendaritza taktikoaren barrenean lan hauek sartzen dira: polizia-lanen plangintza, programazioa, koordinazioa, gainbegiratzea eta ebaluazioa, eta, halaber, prozedura operatiboen gaineko aholkua ematea eta haien homogeneotasuna bermatzea.

9. artikulua. *Polizia etxeak*

1. Foruzaingoa Polizia Etxetan antolatuta egonen da lurraldearen arabera.

2. Buru bat egonen da polizia etxe bakoitzaren arduradun, kasuan kasuko polizia etxeko buru. Komisarioak edo inspektoreak polizia etxeetako buru aritzen ahal dira. Buruak izendatzeko kontuan hartuko da polizia etxeen tamaina, beren baitan dauden unitate espezializatuak eta gisako beste parametro batzuk, behar bezala arrazoituak. Dagokion foru aginduan ezartzen denari jarraikiz, polizia etxe batek inspektore bat izan behar badu buru, horrek bere enpleguari dagozkion ordainsariak jasoko ditu, gehi burutzagatik dagokion osagarria.

3. Polizia etxeko buruak, organikoki, Ikuskapen Orokorreko Arloko buruaren mendean egonen dira, eta funtzionalki, berriz, Foruzaingoko arlo bakoitzeko buruen mendean, bere espezialitatearen esparruan.

4. Polizia Etxeko buruaren berezko eginkizunak dira Kidegoko buruak ematen dituen jarraibide orokorrak betetzen direla eta Arloko buruak oro har ematen dituen berariazko jarraibideak garatzen direla ziurtatzea.

Orobat, polizia etxeetako buruei honako eginkizun hauek dagozkie:

a) Hartzen duten lurralde eremuko herritarrei segurtasuna, babeseta eta laguntza ematea.

b) Lurralde eremu horretan Foruzaingoaren eledun eta ordezkaria izatea.

c) Polizia etxearen barnean polizia arauak eta barne arauak betetzen diren begiratzea.

d) Bere lurralde eremuan destinoa duten unitate operatiboak zuzentzea eta koordinatzea.

e) Bere lurralde eremuko segurtasun egoeraren berri izatea eta toki horretarako ezartzen diren helburuak lortzen saiatzea.

f) Bere lurralde eremuan polizia lana hobetzeko dauden beharrak finkatzea.

g) Bere lurralde eremuko polizia-jarduera aztertu eta ebaluatzea.

h) Herritarrei arreta emateko zerbitzuak, gizartearekiko harremanak eta bere lurralde eremuko segurtasunaren prebentzioa sustatzea.

i) Bere lurralde eremuko udaltzaingoekin koordinazioa izaten laguntzea.

j) Bere lurralde eremuko segurtasun arazoei buruzko informazioa bermatzea eta zerbitzu zentralekin koordinatuta aritzea konponbidea bilatzeko.

5. Polizia etheen lurralde eremuan eta horien mende polizia arretarako bulegoak ezartzen ahalko dira, modu finkoan nahiz mugigarrian, kasuan kasuko polizia etxetik urrutien dauden herrietara eramateko polizia arreta. Polizia arretarako bulegoak taldeekin parekatuko dira.

6. Polizia etxeei atxikitako langileak polizia etxeko buruaren mende arituko dira zuzenean.

10. artikulua. *Brigadak.*

1. Brigadak polizia lanak zuzenean egitearen ardura duten organo operatiboak dira.

2. Brigadak zentralak edo lurralde batekoak izan daitezke, sortzen dituen arauan ezarri bezala. Brigada zentralak, oro har, dibisio bati atxikiko zaizkio eta lurralde batekoak polizia etxe bati.

11. artikulua. *Taldeak.*

1. Taldeak, oro har, brigada baten barrenean izaten dira eta polizia lanaren eginkizun espezializatuak egiteaz arduratzen dira.

2. Taldeak zentralak edo lurralde batekoak izan daitezke, sortzen dituen arauan ezarri bezala.

12. artikulua. *Unitate organikoak sortzea, aldatzea eta kentzea.*

1. Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariari dagokio arlo, dibisio, polizia etxe, brigada, talde eta polizia arretarako bulegoak sortzea, aldatzea edo kentzea, Barneko zuzendari nagusiak proposaturik.

2. Arlo, dibisio, polizia etxe, brigada, talde eta polizia arretarako bulegoak sortzeko edo kentzeko, polizia-lanak elkartu beharri erantzunen zaio, hurrenez hurren gisa honetakoak direlarik: homogeenak, goragoko zuzendaritzakoak, polizia-lanaren alor zehatzen zuzendaritza taktikakoak, polizia-lanak zuzenean gauzatzekoak eta lan espezializatuak zuzenean gauzatzekoak. Orobat, kontuan hartuko dira tamaina, interesa, eginkizunaren garrantzia, bateragarritasuna eta espezializazio maila, aplikatu gogo den egitura eredia eta egokitasunari dagozkion bestelako inguruabarrak, behar bezala arazoituak.

13. artikulua. *Burutzak betetzea.*

1. Arlo, dibisio eta polizia etxeetako buruak Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariak izendatuko ditu eta orobat kargutik kenduko askatasun osoz, Foruzaingoko buruak proposamena egin eta hura Barneko zuzendari nagusiaren bitartez bideraturik.

2. Orokorrean, brigada, talde eta polizia arretarako bulegoetako burutzak deialdi baten bidez beteko dira, kasuan kasuko antolaketa unitateari atxikitako langileen artean, Lanpostuak

betetzeko erregelamenduan aurreikusitako lehiaketa prozeduraren bidez, non ez duen plantilla organikoak izendapen librea erabiliz betetzeko aukera aurreikusten, salbuespenez eta burutzaren inguruabar berariazkoei begiraturik.

3. Aurreko ataletan aipatu unitateetako buruak kanpoan edo eri daudenean edo aldi baterako beste edozein ezintasun suertatzen zaienean, Foruzaingoko buruak proposaturik Barneko zuzendari nagusiak izendatzen duen enplegu bereko agintariak edo, bestela, maila bat beheragoko enpleguakoa betetzen ahalko ditu haren eginkizunak, harik eta itzultzen den arte.

4. Eskatutako enpleguan langilerik ez bada, 1. eta 2. ataletan aipatu unitateetako burutzak bitarteko gisa betetzen ahalko dituzte, egoera horrek iraun bitartean, maila bat beheragoko enpleguak langileek, aldezturik Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariak izendaturik arloan, dibisioen eta polizia etxeen kasuetan, edo Barneko zuzendari nagusiak izendaturik polizia arretarako bulegoen, brigaden eta taldeen kasuan, Foruzaingoko buruak proposaturik.

5. Proposamena prestatzeko eta burutzak esleitzeko, kontuan hartuko dira unitatearen tamaina, haren espezializazioa, izendatuaren eskarmentua eta trebakuntza eta egokitasunari dagozkion bestelako inguruabarrak, behar bezala arrazoituak.

II. KAPITULUA

Arloak eta Dibisioak

1. atala

14. artikulua. Arloak

Nafarroako Foruzaingoa honako Arlo hauek ditu bere egiturari:

- a) Ikuskapen Orokorreko Arloa.
- b) Barne Segurtasunaren eta Polizia Administratiboaren Arloa.
- c) Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloa.
- d) Herritarren Segurtasunerako Arloa.
- e) Ikerkuntza Kriminaleko Arloa.

2. atala

Ikuskapen Orokorreko Arloa

15. artikulua. *Ikuskapen Orokorreko Arloa*

1. Ikuskapen Orokorreko Arloaren eginkizuna da Foruzaingoko buruari sostengua ematea langile eta materialen kudeaketarekin, informaziorako sistema eta teknologien hobekuntzarekin, erakundearen helburu orokorren lorpenarekin eta poliziaren administrazioarekin zerikusia duten ardura guztietan.

2. Dibisio Tekniko Orokorra Ikuskapen Orokorreko Arloaren mende dago

16. artikulua. *Dibisio Tekniko Orokorra*

Dibisio Tekniko Orokorrari eginkizun hauek dagozkie:

a) Informazioaren sistema eta teknologien diseinuan, ezarpenean eta hobekuntzan proposamenak egitea eta parte hartzea, Foruzaingoaren beharrak asetzeko, eta haien eraginkortasuna ebaluatzea.

b) Poliziari ematen zaizkion baliabide teknologikoak ongi erabil daitezen arduratzea eta poliziaren datu baseak mantentzeko lanak kudeatzea, datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz.

c) Poliziaren estatistikak egin eta azter daitezen sustatzea.

d) Datuak mekanizatzea, eta bitartekari aritzea kanpoko erakundeekin datu baseak koordinatzeko.

e) Europako, Estatuko, autonomia erkidegoetako edo udalerrietako beste administrazio eta erakunde batzuekin, polizialak edo teknikoak izan, egindako akordio eta hitzarmenak betetzen diren begiratzea, konpromisoak beteko direla bermatzeko, eta haien berrikuspena edo ez-betetzeen salaketa proposatzea.

f) Instalazioak mantentzeko lanen kudeaketa eta kontrola, poliziaren ekipamenduaren administrazioa, poliziaren baliabide teknikoen inbentarioa eta kontrola eta horiek erosteko proposamenak egitea.

g) Foruzaingoaren diru baliabideak kudeatzea, fakturak kontrolatzea eta Foruzaingolari esleitutako aurrekontua betetzeko moduaren jarraipena egitea.

h) Foruzaingoak bere dituen transmisio, telefonia eta mapagintza kontuetan jardutea.

i) Foruzaingoko buruari bere eginkizunetarako laguntza administratiboa eta teknikoa ematea.

j) Beste polizia kidego eta administrazioekiko polizia harremanak bideratzea.

k) Agiri sailkatuak erregistratu, artxibatu eta zaintzea. Halaber, akordioekin, lankidetzeta-protokoloekin, metodologiarekin eta poliziaren funtzionamendu arauekin zerikusia duten agiriak artxibatu eta zainduko ditu, kanpoko organoekiko postazko harremanez arduratuko da, Foruzaingoko buruari edo aholku eta eztabaida organoei beren lanerako laguntza emanen die eta behar dituzten laguntza dokumentuak prestatuko ditu.

l) Administrazioa eta auzitegiakiko agintarien eskaerak kontrolatzea eta erantzutea.

m) Polizia jardueren urteko memoria egitea.

n) Poliziaren lanari buruz herritarrek jaso behar dituzten ohar polizialak aztertzea, horiek egin eta tratatzeko aholkuak ematea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan komunikazioaren eta informazio politikaren arloko eskumenak dituzten organoekin harremanak izatea eta halako oharren tratamendua koordinatzea.

ñ) Kidegoko langileek prestakuntza arloan dituzten behar orokorrak eta berariazkoak bildu, atzeman eta aztertzea, prestakuntza planak egiten eta ikasleen prestakuntza prozesuak antolatzen parte hartzea Nafarroako Segurtasun Eskolarekin elkarlanean, eta poliziek tiro arloan behar duten prestakuntzaz arduratzea.

o) Lanpostu eta lantokietako arrisku faktoreen azterketan eta balorazioan parte hartzea.

p) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

3. atala.

Barne Segurtasunaren eta Polizia Administratiboaren Arloa

17. artikulua. *Barne Segurtasunaren eta Polizia Administratiboaren Arloa*

1. Barne Segurtasunaren eta Polizia Administratiboaren Arloari dagokio, foru dekretu honetan ezarritako eginkizunen arabera, Nafarroako Foruzaingoaren helburu orokorrak bete daitezen begiratzea ondoko jarduketa eremuetan:

a) Bere ardurapean jartzen diren eraikin eta instalazioen babeseta eta segurtasuna.

b) Segurtasun pribatuaren arloan bere ardurapean jartzen diren zerbitzuen ikuskeraketa eta kontrola, koordinazioa eta lankidetzaketa.

c) Prebentzioko polizia-lana eta arau-hauste administratiboaren ikerketa eta salaketa, ingurumenaren babesaren eta joko eta ikuskizunen alorretan.

4. sekzioa.

Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloa

18. artikulua. *Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloa*

1. Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloari dagokio, foru dekretu honetan ezarritako eginkizunen arabera, Nafarroako Foruzaingoaren helburu orokorrak betetzen diren begiratzea ondoko polizia-jarduketa eremuetan:

a) Trafikoaren eta garraioen zaintza, antolamendua eta kontrola, indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraikiz.

b) Atestatuak irekitzea, zirkulazio istripuengatik eta bide-segurtasunarekin eta automobilaren delinkuentziarekin loturiko delituengatik.

c) Bide segurtasunarekin zerikusia duten hobekuntzak sustatzea.

2. Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloa Bide Segurtasunerako Dibisioaren mende dago.

19. artikulua. *Bide Segurtasunaren Dibisioa*

Bide Segurtasunaren Dibisioari dagokio foru dekretu honek polizia lanaren esparru hauetan aurreikusten dituen eginkizunak betetzea:

a) Trafikoa eta garraioak zaindu eta antolatzea bide publikoetan, hiriarteko bideetan eta zeharbideetan, udaltzaingorik ez duten tokietan batik bat, edo, udaltzaingoa badago, harekin lankidetzan

b) Trafiko eta garraio arloko arau-hausteak salatzea.

c) Goian adierazitako gaien inguruan emandako egintzak nahitaez betearaztea.

d) Garraio berezietan eta kirol lehiaketetan laguntzea, bai eta, kirol probaren izaera edo parte-hartzaileen kopurua ikusirik, zirkulazioarentzat arrisku larria dagoenean ere.

e) Bide publikoetako istripu-indizeak kalkulatzeko azterlan eta ebaluazio lanetan laguntzea.

f) Alkoholemiaren, estupefazianteen, psikotropikoen, bizigarrien eta antzeko beste substantzia batzuen kontrolen emaitzak aztertzea.

g) Trafiko eta garraio arloetan administrazio baimena eman aurretiko txostenak prestatzea.

h) Trafikoaren segurtasunarekin zerikusia duten erakundeekin lankidetzan aritzea.

i) Foruzaingoko gainerako unitate operatiboekin lankidetzan aritzea, segurtasun arloko baterako ekintzetan.

j) Istripuei aurrea hartzeko baliabideak aztertu eta planifikatzea.

k) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

5. atala.

Herritarren Segurtasunerako Arloa

20. artikulua. *Herritarren Segurtasunerako Arloa*

1. Herritarren Segurtasunerako Arloari dagokio, foru dekretu honetan ezarritako eginkizunen arabera, Nafarroako Foruzaingoaren helburu orokorrak betetzen diren begiratzea ondoko jarduketa eremuetan:

a) Delitu-egintzen prebentzioa, pertsona eta ondasunei babesa eta laguntza ematea, bereziki istripu eta larrialdietan, baita espazio publikoen zaintza ere.

b) Bere zaintzapean jartzen diren agintarien segurtasuna bermatzea.

c) Ordena eta herritarren segurtasuna zaintzea eta, kasua bada, egoera bere onera ekartzea, behar diren esku-hartzeen bitartez.

d) Atxilotuak epailearen esku jartzeko, zaintzeko eta lekuz aldatzeko zerbitzua egitea, eta lan horretan poliziaren zerbitzu eta unitateekiko koordinazioa bermatzea.

2. Herritarren Segurtasunerako Arloaren mende dibisio hauek izanen dira:

- a) Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioa.
- b) Esku Hartzeko Dibisioa.

21. artikulua. *Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioa*

Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioari dagokio foru dekretu honek polizia lanaren esparru hauetan aurreikusten dituen eginkizunak betetzea:

a) Pertsona eta ondasunak babestu eta haiei laguntza ematea, bereziki larrialdietan, bere eskumeneko lurralde eremuan eta polizia etxeekin koordinaturik.

b) Espazio publikoak zaintzea eta manifestazioak eta, oro har, elkarretaratze handiak babestu eta antolatzea.

c) Delituei eta gizartea asaldatzen ahal duten jardueri aurrea hartzeko neurriak hartzea.

e) Herritarren segurtasunerako jarduketak gauzatzea, polizia etxeekin, beste polizia kidego batzuekin edo herritarren segurtasunaren arloan diharduten erakundeekin koordinaturik eta elkarlanean.

e) Herritarren segurtasunerako zerbitzuak eskatzen dituzten polizia unitateei arreta ematea eta haiekin elkarlanean aritzea.

f) Polizia berehala laguntzera joateko eskatzen den guztietan informazioa eta laguntza eskaintzea.

g) Herritarren segurtasunaren arloan gizartearen eskariak eta gizartearekiko harremanak sustatu, koordinatu, kontrolatu eta bideratzea.

h) Herritarren segurtasunaren arloan jarduteko ildo orokorrak aztertu eta planifikatzea.

i) Herritarrei arreta ematearekin zerikusia duten lanak egitea, bai maila zentralean bai lurralde hedapenean ere, polizia etxeekin koordinaturik eta elkarlanean.

j) Segurtasun publikoa areagotzeko neurriak eta jarduketa protokoloak garatzea, beste polizia unitate batzuek esku hartu behar dutenean.

k) Herritarrei arreta eta prebentzio zerbitzu hobea ematea helburu duten neurriak, hobekuntzak eta ekimenak proposatzea.

l) Atxilotuak epailearen esku jartzeko, zaintzeko eta lekuz aldatzeko zerbitzua egitea, eta lan horretan poliziaren zerbitzu eta unitateekiko koordinazioa bermatzea.

m) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

22. artikulua. *Esku Hartzeko Dibisioa*

Esku Hartzeko Dibisioak ardura hauek ditu:

a) Pertsonen eta ondasunen segurtasuna arriskuan jartzen duten gertakari eta egoeretan prebentzio lana egitea eta ordena eta herritarrak babesteko eta, kasua bada, egoera bere onera ekartzeko neurriak hartzea.

b) Gainerako arlo polizialei sostengu eta laguntza espezializatua ematea, arrisku egoerak deuseztatu eta haiei aurrea hartzeko asmoz, dibisio honen parte hartzea beharrezkoa denean.

c) Prebentzioko operatibo arruntetan eta hondamendi edo ezbehar publikoei aurre egiteko operatibo berezietan parte hartzea.

d) Pertsona arriskutsuak edo armatuak edo gauzak indargabetu beharra dagoenean edo lehegailuak, estupefazianteak eta herritarrei edo ondasunei kalte egiteko arriskua dakarten gainerako elementuak bilatu behar direnean esku hartzea.

e) Estatuko edo atzerriko goi mailako pertsona ospetsuak babestea, Nafarroako Gobernuak hala eskatzen dionean.

f) Elkarretaratze handietan, manifestazioetan eta jendaurreko ikuskizunetan esku hartzea.

g) Terrorismo delituengatik nahiz delitu arruntengatik poliziaren alerta deklaratzeko denean esku hartzea, eta kontrolak eta dispositibo polizialak ezartzea.

h) Tokiak eta instalazioak babestea, goi mailako agintariek hala erabakitzen dutenetan.

i) Matxinadetan, etxe-husteetan eta antzeko arriskua duten egoeretan esku hartzea.

j) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

6. atala.

Ikerkuntza Kriminaleko Arloa

23. artikulua. *Ikerkuntza Kriminaleko Arloa*

1. Ikerkuntza Kriminaleko Arloari dagokio, foru dekretu honetan ezarritako eginkizunen arabera, Nafarroako Foruzaingoaren helburu orokorrak betetzen diren begiratzea ondoko jarduketaren eremuetan:

a) Delituak ikertzea eta delitugileak jazarri eta geldiaraztea.

b) Ikerkuntza zientifiko eta teknikoa, ikertzeko baliabide eta metodo espezializatuak erabiliz.

c) Herritarren segurtasuna hobetzeko interesgarria den informazioa bildu eta lantzea.

d) Nazioko nahiz nazioarteko agintari judizial eta polizialekiko koordinazioa eta elkarlana, Foruzaingoak sinaturiko hitzarmen, protokolo eta akordioei jarraikiz.

2. Ikerkuntza Kriminaleko Arloaren mende unitate hauek izanen dira:

a) Polizia Judizialaren Dibisioa.

b) Polizia Zientifikoaren Dibisioa.

c) Informazio Dibisioa.

24. artikulua. *Polizia Judizialaren Dibisioa*

Polizia Judizialaren Dibisioari dagokio foru dekretu honek polizia lanaren esparru hauetan aurreikusten dituen eginkizunak betetzea:

a) Delituak ikertzea eta delitugileak jazarri eta geldiaraztea. Ondoren, behar diren atestatuak instruitzea eta agintari judizial eta fiskal eskudunen esku jartzea, antolamendu juridikoak agintzen duen moduan.

b) Agintari judizial eta fiskalei laguntza ematea, beren egoitzatik kanpora poliziaren laguntzaz egin behar dituzten jarduketetan.

c) Hertsatze lana egitea ekartzen duten jarduketak eta mota guztietako zereginak gauzatzea, agintari judizial edo fiskalek aginduta.

d) Ikerketa polizialaren arloan beste segurtasun indar eta kidego batzuekin sinatutako akordio eta protokoloak betetzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.

e) Behar diren polizia unitateekin elkarlanean, delinkuentziaren kontrako borrokarako bitartekoak garatzea, eta herritarren segurtasuna zaintzeko edo prebentziorako lagungarriak diren gertaerak edo berriak beste zerbitzu batzuei jakinaraztea.

f) Izaera bereko beste kooperazio edo laguntza lan batzuk, eskumena duten agintari judizial edo fiskalek aginduta.

g) Delituak ikertzeko baliabideak kudeatzea eta ikerketa lanaren kalitatea hobetzeko proiektuak egitea.

h) Delitugile taldeen edo banda profesionalen kontrako ikerketa planak garatzea.

i) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

25. artikulua. *Polizia Zientifikoaren Dibisioa*

Polizia Zientifikoaren Dibisioari dagokio foru dekretu honek polizia lanaren esparru hauetan aurreikusten dituen eginkizunak betetzea:

- a) Ikerkuntza teknikoa, kriminalistikaren eta identifikazioaren arloko ikerketa metodo espezializatuak erabiliz.
- b) Eskatzen zaizkion peritu txostenak eta agiriak prestatzea.
- c) Polizia zientifikoari dagozkion gaietan, metodologia teknikoa ezartzea.
- d) Gainerako unitate organikoari laguntza zientifikoa ematea, eskatzen zaionean.
- e) Dibisioak tramitatzen dituen agiriak zaindu eta artxibatzea.
- f) Laborategi zientifikoa kudeatzea.
- g) Foruzaingoak polizia zientifikoaren arloan sinatzen dituen akordio eta protokoloak betetzea.
- h) Edozein delitu egiten denean begizko ikuskapena egitea, delitua egiteko erabilitako elementuak atzematea, frogak biltzea eta horiek gordetzeko katea aseguratzea.
- i) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

26. artikulua. *Informazio Dibisioa*

Informazio Dibisioak ardura hauek ditu:

- a) Ordenari eta herritarren segurtasunari eusteko eta prebentzio lana egiteko interesgarria den informazioaren bilketa, tratamendua eta ustiapena antolatu eta kudeatzea, bai eta bere eskumeneko lurraldean diharduten delitugile taldeak ikertzea eta haiei aurrea hartzea ere.
- b) Prebentzio eta ikerketa lanak egiten dituzten unitate organikoari sostengu ematea.
- c) Beste administrazio batzuekin polizia arloko lotura lanak egitea Europar Batasuneko koordinazio polizialaren prozesuetan, Foruzaingoko buruak ematen dituen jarraibideei segituz.

d) Agintzen zaion izaera bereko beste edozein.

III. TITULUA
FORUZAINGOAREN FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA
Funtzionamendu araubidea

27. artikulua. *Burutzak*

1. Langileei eta unitatearen berezko eginkizunei dagokienez, unitate bakoitzeko buruak honako betebeharrak izanen ditu:

a) Nagusiengandik jasotzen dituen aginduak helarazi eta betearaztea, eta berari dagozkionak ematea.

b) Bere unitatearen funtzionamendu ona eta diziplina zaintzea.

c) Unitateen jarduera gainbegiratzea eta hobetzeko proposamenak egitea, hobeki funtziona dezaten.

d) Nagusi hurrenari unitatearen berezko eginkizunak garatzean sortzen diren gorabehera guztien berri ematea.

e) Bere unitatearen ordezkaria izatea edozein agintari, erakunde edo pertsonaren aurrean, zerbitzuak eskatzen duenaren arabera.

f) Bere agindupeko langileek helarazten dizkioten eskaerak edo jakinarazpenak nagusiei jakinaraztea, bere unitatean lan giro ona sustatzea.

g) Bere unitateari atxikitako baliabide materialen, ibilgailuen eta ekipamendu teknikoaren kontserbazio ona sustatzea.

h) Unitatearendako xede berariazkoak identifikatzea eta eskatzen zaizkion zerbitzu berezien plangintza egitea.

i) Nagusiei iradokizun edo ohar egokiak egitea, unitatearen funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko.

j) Lan prozeduren prestaketa, ebaluazioa eta berrikuspena sustatzea, unitateak hobeki funtziona dezan.

k) Unitateak prestakuntzaren eta baliabide materialen aldetik dituen premiak identifikatzea.

l) Hierarkiako nagusiek agintzen dizkien gainerako guztiak.

2. Edozein arrazoi dela-eta Foruzaingoaren jarduketa gidatzeko agintaririk izendatu ez bada, ardura hartuko du maila handiena duen udaltzainak eta, maila bera duten hainbat udaltzain badaude, maila horretan antzintasun handiena duenak.

28. artikulua. *Hierarkia naturala*

1. Foruzaingoaren funtzionamendua erregelamendu honetan ezartzen den bide hierarkikoaren bitartez egingen da.

2. Unitate bakoitzera atxikitako foruzainek unitateko buruaren, haren goragoko unitateetako buruen, Foruzaingoko buruaren edo goiko beste agintari batzuen aginduak jasoko dituzte arruntean.

3. Foruzainek, premia operatiboak direla-eta, goiko mailako edozein agintaririk emandako aginduak ere bete beharko dituzte, nahiz eta agintari naturala ez izan. Halakoetan, agintari naturalari horren berri emanen diote, ahal bezain laster.

4. Foruzainek zerbitzuari buruz egiten dituzten jakinarazpen eta eskaera guztiak beren unitateko buruari zuzenduko zaizkio. Hura ez dagoenean edo hark berariaz zehazten duenean baizik ez dute goragoko agintari hurrenengana joko.

29. artikulua. *Polizia Judiziala*

1. Nafarroako Foruzaingoko kideak, Polizia Judizialeko unitateetara atxikitzen badituzte, epaileen, epaitegien edo Fiskaltzaren mende ibiliko dira, haiek manatzen dizkieten eginkizunetan aritzean.

2. Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organikoaren 35. artikuluan ezartzen diren ahalmenak izanen dituzte Zigor Jurisdikzioko epaile eta epaitegiek eta Fiskaltzak, Polizia Judizialeko unitateetako kideen aldera.

3. Polizia Judizialeko unitateetako buruek izanen dituzte Agintari Judizialengandik eta Fiskaltzatik etortzen diren errekerimenduak bideratzeko eskumenak, beren unitateko funtzionario edo baliabideek ikerketa batean parte hartzea erabakitzeke tenorean.

4. Polizia Judizialeko unitateetako kideek modu eksklusiboan beteko dute eginkizun hori, eta burutu arte ezin izanen dira manatu zaien ikerketatik kendu edo bereizi, edo bestela hura sorrarazi duen prozedura judizialaren fasea burutu arte, non ez den epaile edo fiskal eskudunak erabakita edo baimenduta.

5. Polizia Judizialeko unitateetako kideei diziplina espedientea irekiz gero, haren xede diren egitateek ikusteko zuzena badute manatu zaien ikerketarekin, txostena eskatuko zaio mendean dauzkan epaile, epaitegi edo fiskalari, beharrezkotzat jotzen diren beste batzuek aparte.

6. Foruzainek, Polizia Judizialeko unitateetan sartzeko, Polizia Judizialeko diploma eduki beharko dute, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana, eta aitzinetik, dagokion prestakuntza ikastaroa gainditu.

30. artikulua. *Polizia Administratiboa*

Barne Segurtasunaren eta Polizia Administratiboaren Arloan eta Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloan sartuta dauden unitate organikoek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan trafikoaren, garraioaren, ingurumenaren babesaren edo joko eta ikuskizunen arloetan eskumena duten zerbitzuekin batera lan egin beharko dute, haiek ematen dituzten jarraibideak poliziaren lanetik atontzeko eta ezartzen diren helburuak lortzeko. Horretarako, zerbitzu horiek ematen dituzten jarraibideak betetzeko behar diren operazio eta dispositiboak programatu eta koordinatuko dituzte.

31. artikulua. *Barne araubidea*

Barne Araubideko Unitatera atxikitako foruzainak Foruzaingoko buruaren mende egonen dira organikoki, eta manatzen zaizkien ikerketetan aritzean Barne aferen arloan eskumena duen kontseilariaren, Barneko zuzendari nagusiaren eta Foruzaingoko buruaren mende egonen dira organikoki, ikertutako egitatea nolakoa den eta zein den.

II. KAPITULUA

Erregelamenduzko agurra.

32. artikulua. *Nahitaezko agurra*

1. Foruzainek, zerbitzuan ari direnean, agurra egin behar dute, eskuin eskua buruan jantzia duenaren muturrera luzaturik, eskuin lokiaren ondora, tente jarreran, agintari hauek parean suertatuz gero:

A) Estatukoak:

- Espainiako errege-erreginak, Asturiasko eta Vianako printze-printzesak eta Espainiako infante eta infantak.

- Nazioko Gobernuko lehendakaria.

- Diputatuen Kongresuko eta Senatuko lehendakariak.

B) Foru Komunitatekoak:

- Nafarroako Gobernuako lehendakaria eta kontseilariak.

- Nafarroako Parlamentuko lehendakaria.

- Barneko zuzendari nagusia.

C) Foruzaingoa.

- Hierarkiako nagusiak.

2. Orobat agurtuko dituzte kasu bakoitzean adierazten diren beste agintari edo pertsonak, kontuan harturik protokoloaren eta jendetasunaren arauak. Beste polizia kidegoetako edo Indar Armatuetao kideak ere agurtu beharko dituzte, inguruabarren eta jendetasun arauen arabera.

3. Ekitaldi handietan erregelamenduzko agurra egin beharko da, ereserki nazionala edo Nafarroako ereserkia jotzen bada. Halaber, agurra egin beharko da beste erkidegoetako, estatuetao edo erakundeetao ereserkiak jotzen direnean, jendetasunaren arauak komenigarri egiten badute.

4. Uniformea edo burukoa ez janzteagatik, erregelamenduzko agurra bidezkoa ez bada, egoeraren araberao jarrera eta duintasuna gorde beharko da aipatu agintarien aitzinean.

33. artikulua. *Agurraren salbuespena*

1. Agurtu beharra desagertuko da foruzainak zerbitzuak berezko dituen eginkizunetan aritzean, hura egiteak traba egiten ahal badie.

2. Foruzainak agurtu beharreko pertsonaren batekin suertatzen direlarik lan egiteko ohiko tokietan, topaleku

maizkoetan edo ekitaldi luzeetan, harekin suertatzen diren lehenbizikoan baizik ez dute agurtuko.

34. artikulua. *Kortesiako agurra*

Foruzainek erregelamenduzko agurra eginen dute, herritar batengana jotzen edo herritarrek errekerimendu egiten dieten guztietan. Konplimenduz, "egun on, arratsalde on edo gabon" erranen dute, betiere zuka, mespretxuzko keinuak saihestuz edo ika-miketan sartu gabe. Aldiz, gizabide eta begirunerik handiena agertuko dute, eta zorrotz begiratuko dituzte Segurtasun Indar eta Kidegoetako kide guztien jarduketarako ezarritako oinarritzko printzipioak.

III. KAPITULUA

Armak

35. artikulua. *Armak*

1. Zerbitzuan ari diren guztietan, foruzainek erregelamenduzkotzat jotzen diren armetariko bat edo batzuk eramane dituzte, hala ez izateko arrazoi zuzenen bat dagoenean izan ezik.

2. Foruzain guztiek jakin beharko dute, modu teknikoan nahiz praktikoan, armak eta jarduketa polizialetan enplegatzen diren gainerako baliabide hertsagarriak modu egokian erabiltzen; horretarako, behar den prestakuntza eta entrenamendua hartuko dituzte.

3. Norbanakoaren armamentua atxikirik daukan poliziaren ardura da, eta erantzun beharra izanen du funtzionamendurako eta ikuskapenerako egoera ezin hobean ez badago.

4. Tiro ariketetan izan ezik, su-arma erabiltzen den guztietan horren berri emanen zaio, idatziz, agintari hurrenari.

5. Norbanakoaren armamentua kenduko zaio haren titularrari Foruzaingoa behin-betiko uzten duenean, jarduneko zerbitzuaz besteko administrazio egoeran deklaritzen denean, kautelazko neurri gisa edo diziplina-zehapenaren ondorioz.